79. zenbakia

A.B.E.

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2005ko apirilaren 21a,osteguna



Editoriala

EPA DENOI!!! GURE IZENAK MAIALEN, IKER,IÑAKI ETA MAITE DIRA. GURE A.B.E.a ESKUTAN BALDIN BA DUZUE OSO ONDO PASAKO DUZUE. EZ ZARETE ASPERTUKO GURE ENTRETENIGARRIEKIN ETA GAIXORIK BAZAUDETE LASAI! SENDAGILEA DAGO.

Aritz Aranburu Osinalde sariaren garaile

Joan den larunbatean, Gabirian (Gipuzkoan) izandako bertsolari txapelketan Aritz Aranburu Zarauztarrak "Osinalde saria" irabazi zuen. Zarauztar gazteak bere bigarren txapela irabazi zuen larunbat gauean. Lehena Zautzen izan zen baina ez zen txapelketa berdina (Litzardi saria). Ehun eta hamar pertsona bildu ziren Osinaldie elkartean sari banaketa ikusteko. Aritz Aranburu , Atzol Barandioran, Beñat Lizaso, Unai Muñou Agin Rezola eta Iban Urdangarin ziren bertsolariak baina Txapela Aritz Aranburuk jantzi zuen, bigarren Aitor Barandiaran izan zen eta Beñat Lizasok bertso Honenena saria jaso zuen,

Aritz Aranbururen garaipena Bere abesteko modua izan daiteke, modu tradizionalean kantatzen dituelako.



Mikel Olalde

Erredaktoreak

MAIALEN,IKER,IÑAKI ETA MAITE

aurkibidea

1.- AZALA: ARITZ ARANBURU
2.- GURE ESKOLA: ERREBISIOA
3.- ALBISTEAK:
4.- LUMAREN KILIMA: DESKRIBAPENA
5.- GU ERE IDAZLE:MATEMATIKARI TXIKIEN TXOKOA
6.- ENTRETENIGARRIAK: FIJATU ONDO

Gure eskola

ERREBISIO.A ESKOL.A.N

Gaur medikuak eskolara etorri dira, 5. mailakoei errebisioa egitera.Bi mediku etorri dira. Beraien egitekoa 5. mailakoen entzumen, bista, altuera ,pisua eta abar ondo dagoela konprobatzea da.

elkarrizketa

Elkarrizketa Liher-eri

1– Zer egin dizute?
-Pisatu, neurtu, pitilina begiratu, begiak begiratu, etab....
2-Zer sentitu duzu?
-Ezer.
3– Gustatu zaizu?
-Bai eta ez.
4-Urduri zeunden?
- Pixka bat.

5– Errepikatu nahiko zenuke?
-Ez
6– Jatorrak iruditu zaizkizu medikuak?
-Bai

albisteak

NAZIOARTEA

HABEMUS PAPAM



Aita Santu berria hautatu dute kardenalek. Bere izena Joseph Ratzinger da eta bere Aita Santu Izena Benedicto XVI da. Joan den asteartean aukeratu zuten, arratsaldeko 18:00 aldera.
Ratzinger Alemaniakoa da eta 78 urte ditu.Esaten dutenez Juan Pablo II Aita Santuaren eskubiko eskua zen.

Euskadi

Arrasateko unibertsitatean 4 ikasle atzo hil ziren errepideko istripu batean. Gazteak 2 mutil eta 2 neska ziren eta etxerantz zihoazten, baina errebuelta batean kotxearen kontrola galdu eta gero autobus baten aurka txokatu eta hil egin ziren.

Euskadi

Nafarroan D eredua gainezka egin du eskoletan. Eskoletaz aparte, kalean ere gehiago hitz egiten da



Iumaren kilima

DESKRIBAPENA



Gauza hau zuhaitzez betea dago, Donostian bizi da, gauetan bueltaka hasten zaion begi bat du. Hankak beti uretan ditu, ez ditu besorik, bi bizilagun bakarrik ditu, Donostiari olatuengatik babesten du eta itsasoaren ondoan dago beti, itsasontziek askotan bisitatzen dute.





ZER DA?

LIDE ARZELUS

MATEMATIKARIK TXIKIEN TXOKOA

Saia zaitez 3 zifreko edo gehiago dituen zenbaki kapikua bat egiten.
Horrela egin: zenbaki bat hartu eta gehitu zenbaki bera baina zifrak beste aldera jarriz.

Adibidez:

12
+21
33
+33
66
+66
132
+231
363

Inork ez du lortu 196rekin

Saiatu egiten

EGILEA:Elena Ibarluzea

Eguraldia



Tenperaturak

Gasteiz 7 - 13 ºC
Bilbao 9 - 15 ºC
Donostia 8 - 14 ºC
Iruña 6 - 16 ºC
Baiona 5 - 13 ºC
Maule-Lextarre 3 - 14 ºC
Donibane Garazi 5 - 15 ºC

Zerua oso hodeitsu egongo da eta euri arina eta iraunkorra egingo du, Kantauri isurialdean ertaina eta aukera handiagoz mendebaldean.
Norabide aldakorreko haize ahul-bizia ibiliko da, mendebaldeko norabidea nagusi.
Tenperatura maximoak gutxi edo moderatuki igoko dira.

entretenigarriak

Batzuetan ikusmenak engainatu egiten gaitu ea aurkitzen dituzuen erantzunak



Jar ezazu paper bat elefante honen gainean baina oinak estali gabe. Zenbat oin ditu? Orain estali oinak eta begiratu hankak. Zenbat hanka ditu?



Begiratu bi loreen barruko pilota. Zein da handiagoa?



Fijatu zaitez karratuen arteko pilotetan. Zein koloretakoak



Paraleloak al dira barruko marra hauek?

IÑAKI REKALDE